

Nafar **karia**

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko uztailak 2 / III. urtea / 82. zenbakia

Helburu bila

Eusko Ikaskuntza elkarte kulturalak 75 beteko ditu aurtengo irailan. 1918an, XIX. mendeak Euskal Herrian utzitako hutsune kulturala bete asmoz sortu zen erakundearen une onena, baina, ez da oraingoa. Arazo ekonomiko larriekin, erakunde ofizialek azken hamarkada honetan erakutsi duten entusiasmo faltari leporatzen zaio egoera. Izan ere, lau diputazioek osatu zuten Eusko Ikaskuntza, eta lauek berretsi

zuten hitzarmena 1977an. Elkar-tearen orduko bere betebeharra, baina, beste erakundeek berengatu dute, eta benetako helburuen bila dabil orain. Tomas Urzainki Nafarroako presidentearen esanetan, gauza asko eginda ere, ikerlari guztien arteko koordinazioa falta da oraindik, eta hori jotzen du bete-behar nagusitzat. Zenbait urtetako arazoen ondotik, Nafarroan, egun, lanerako «giro ona» dagoela dio.

Metropoli forala



FELIPE RIUS

Ogibidez kazetaria izan arren, beti izan naiz sekula elkarriketa baterako zitarik eman nahi ez duen Van Morrison abeslariaren 'fan' bat eta aitortu beharko nuke inbidia pixka bat ere badiodala. Eta Van Morrison bezalaxe, gustatzen zaiena inolako kontzesiorik gabe egiten duten guztiak. Beraiei ezezik egiten dutena neri ere gustatzen bazait, orduan txapela kendu beharra dago. Merkatuari ihes egitea ez da meritutik gutxi gauza guztien gaintik errentabilitatea neurtzen den garai hauetan, salmentak eta balantze ekonomikoak helburu bakarra diren milenioaren bukaera honetan —zin egina nion nire buruari milenioaren bukaeraren topikoa ez nuela berriro errepikatuko, baina atera egin zait—. 'Too long in exile' diska erosi berria dut, eta dagoeneko hamaika aldiz entzuna dut. Huajaloteen plastikoa itxoin beharko du —nahikoa entzuten da Sanferminetan, udako kanta napar mex hutsa izanen baita—.

Metropoli foral maite-gorrotatu honetan askotan egiten diogu uko merkatuari, baina ez beti gusatzten zaizkigun gauzengatik. Herri atipiko batean bizitzaren desero(s)tasunak edo ordaindu beharreko peajeak nonbait. Gure komunikabideetarako edo zuzentzen dituztenentzat izugarritzko garrantzia omen duten zenbait gertaera kubritu behar ditugu, gaurkotasunak dakartzkigun hamaika txorakeriez informatu beharra daukagu eta prentsaurretara joaten gara irakurtzen ari garen liburuaren kapitulu batez edo gure nobiaren azken orrazkeraz pentsatzen ari garen bitartean. Eta beti egoten da gustatzen zaizuna egiten ari zarela eta gainera horregatik kobratzen duzula esaten dizun graziosoren bat. Gora lanbide liberalak!

Sanferminak atean ditugu eta betiko topikoak jarriko ditugu berriro ere —perpetan —milenioaren bukaerarena txorakeria bat da sanferminen ondoan—. Hala ere baten batek kazetariok gure errealizazio pertsonalaren tontorrera iristen ari garela pentsatuko du eta esan egingen digu gainera, txupinazoaz idazterakoan orgasmo bat izanen bagenu bezala. Orduan bi irtenbide dituzu, hori esan duenaren buruaren gainean ordenadorearen pantaila hautsi, eta holakorik egitea ez da oso gomendagarria halakoak botatzen dituztenak jerenteak edo komunikabidearen buruak izaten baitira, ala ezentzunarena egin, partimoniaz walkmanaren kaskoak jarri eta Van Morrisonen zinta entzunez herbesteratze luze batean sartu. Eskerrak batzutan gaurkotasunari lotugabeke istorio zentzugabeak idazteko txokoren bat uzten diguten. Lagun batek zioenez, asko kobratzen ez dugun arren psikoanalisten tarifa behinik behin aurreztu dezakegu.



Tomas Urzainki Nafarroako Eusko Ikaskuntzaren presidentea da.
JOXE LACALLE

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Ana Ripa. Txaro Oses eta Mari Luri artisten erakusketa zabalik dago Lizarrako Banco Atlanticoaren erakusketa aretoan. Al-budi Talde Kulturalak kideak dira hirurak, eta bere pinturak ikusteko ordutegia hauxe da: 19.00etatik 21.00etara lan egu-netan.

Alberto Arrancibia eskultorearen lanak ikusgai daude uda osoan Caballo Blanco Mesonean. Euskal mitologiari buruzko eskultura interesgarri batzuek osatzen dute erakusketa hau.

'Garaikideko Pintura' izeneko erakusketa zabalik dago Nafarroako Museoa uztailaren 29a arte. Bertan, hamahiru artista ezberdinen lanak ikus daitezke, 1983 eta 1992 urteak bitartean egindakoak. Amaitu eta gero, Gares, Tafalla eta Tuterako kultur etxetara eramango dute erakusketa hau.

Fernando Calleja artistaren lanen erakusketa zabalik dago Lizarrako Kultur Etxean, Almudi talde kulturalak antolatuta. Callejaren kuadroak uztailaren 18a arte egonen dira ikusgai.

ZINEMA



'Robin Hood' izeneko pelikula eskainiko du Baztango udalak Elizondon, 'Zinema kalean' zikloaren barruan. Zine emanaldi hau datorren astelehenean, uztailak 5, izango da, Merkaturako Enparantzan, gaueko 10.30etan. Sarrera dohainik izango da.

ANTZERKIA



Halokestamos Faltzesko antzerki taldeak obra bat eskainiko du gaur ostirala, uztailak 2, Tafallako Kultur Etxean. Udaletxea eta Kultur Patronatoak antolatuta, gaueko 10.00etan hasiko da, eta 'Fuera de quicio' izeneko obra plazaratuko dute. Sarrerak 200 pezetatan salduko dituzte.

BESTELAKOAK




Festa Antimilitarista ospatuko da bihar larunbata, uztailak 3, Lizarran, Intsumisoen aldeko Batzordeak antolatuta, eta EA, HB, CUE-LKB, Talde Ekologista, Comite 500 años, Peña La Bota, Tximeleta, Institutoko Talde Antimilitarista, Gestorak eta Emakumeen Asanblada taldeen laguntzarekin.

Ultzaman zehar

Ultzama dugu Nafarroako zonalderik atseginenetakoa eta ezagunenetakoa. Iruñetik hurbil belaze zabalek eta herri dotoreek iganderoko eskapadak egiteko aproposa oso egin du, eta deskribapena alferrikakoa izan daiteke askorendako. Nolanahi ere esan beharra dago egun hain zabalak diren esne-behiak ez direla beti izan bertan. Aurretik haragi-behiak baitziren nagusi, baina merkatuak aginduta, aldaketa egin beharrekoa zen. Egunduek esnearekin dauden arazoei, baina, ez dituzte oso egoera onean utzi bertako abeltzainak. Udan nagusi badira behiak, neguak ardiekin nahasten dira.

Gerendiaindik aterako da ibilbidea, eta hortik Zenotzerako bidea hartuko dugu. Errepide ondoan dagoen etxetik hartu, ezkerrean dagoen bideari jarraitu, eta Zenotzko hilerria eskuinean utzita, basoan sartuko gara. Hauek dira Nafarroa osoan lautadetan ikus daitezkeen harizti bakarrenetakoa. Nahastuta daude, baina, beste haritz mota, elorri eta korostirekin.

Hortik aurrera Ultzama ibaiarekin egingo dugu topo, eta bertan arazoak izan ditzakegu, zubia nahiko egoera kaskarrean baitago. Ultzama ibaiaren Belaten jaiotzen da, eta, Orkindik zehar,



Gelbentzura heltzen da. Bertan batzen da Sakanatik datorren Arakilekin, eta biak hiltzen dira Argan, Atarrabian. Bertatik ikusten da ordurako Lizaso, inguruko herririk garrantzitsuenak, eta haruntza abiatuko gara. Hemen inguruan larreak dira nagusi, Ultzamako paisaia ezaguna, hain zuzen ere.

Lizasotik Gorrontz-Olanora doan bideari atxekiko diogu, eta Arakil ibaiaren zeharkatu ondoren, kilometro inguru pasa eta gero, errepidea utzi eta ezkerrean

topatuko dugun bidexka hartu beharko dugu. Bide horretatik Olanora heldu eta gero bentarako bidea hartuko dugu, basotik zehar. Gurutze batera heldu ondoren, eskuinera hartu eta gero ezkerrean Gelbentzuko bentara heldu arte.

Orgiko basoa zeharkatuko dugu ondoren, errepidea berriro aurkitu arte. Hor amaituko da gure bidea, eta bazkaltzen gelditu nahi izanez gero, ez da faltan jatetxerik. Tokia izaten baita arazoa.

ASTEKO PERTSONAIK



Juan Ramon Jimenez
Kontseilari berria



Juan Antonio Lezea
Pilotaria



Patxi Petirena
Intsumisoa

Orain arte Javier Pomes izan da Nafarroako Gobernuaren Ekonomia eta Hazienda sailburua, baina aste honetatik aurrera, Juan Ramon Jimenez iruñesmea dugu kargu horretan. Hau izan da Alliren gobernuan aldatzen den lehen kontseilari, eta hasiera batean Miguel Sanz lehendakariordea kargu horretan jarriko zela esan bazen ere, azkenean, orain arte Ekonomia, Finantzak eta Patrimonioko zuzendari nagusia zenak hartuko du Pomesen lana. Juan Ramon Jimenez kontseilariaren Gobernuaren gazteena izan da, 36 urte besterik ez baititu. Ekonomiketan lizentziatua, hamabost urte zituela hasi zen lanean Iruñeko Banco Atlanticoan, botones lanean. Hamar urte geroago bertako sail komertzialeko burua izan da eta kontseilari kargura iritsi da.

Iaz bezala, aurtan ere Juan Antonio Lezea altsasuarrak irabazi du Nafarroa-Gipuzkoa erremonete txapelketa Arreko Perfecto Lekunberriekin batera. Bera ez zegoen oso pozik partidua amaitu eta gero: «Ez naiz batere ongi aritu, ez nago pozik behintzat egindako jokorekin». Txapelketako partidua guztiak irabazi ditu bikote honek, hasieran naparren artean jokatuak, eta gero gipuzkoarren kontra. Aizpuru eta Kalonge izan ziren finalistak, eta gogoz atera ziren Euskal Jai Uharteko pilotalekuko kantzara, emaitza alde izan baitzuten azkeneko tantuak arte. Baina azkeneko emaitzak balio du, eta naparrek bere jokoa hobetu eta buelta eman zioten markagailuari. Orain, Sanferminetako torneoa gainean daude.

Intsumisoa izateaz gain, EGUNKARIAko langilea ere bada Patxi Petirena sunbeldarra, eta asteazkenean egun librea hartu behar izan zuen Iruñeko Entzutegira joateko. Delitoa, soldadutzari uko egitea. Intsumiso 1990ean eginda, fiskalak hamazortzi hilabeteko kartzela zigorra eskatu zuen haren aurka, eta, beraz ez du kartzelara joan behar izango. Bera izan da uda aurretik Iruñean epaitzen duten azkenetarikoa. Orain bi hilabete hauetan ez dira epailetarik izango, bai ordea mobilizazioak. Horrela iragarri dute talde antimilitaristek eta kartzelan dauden 28 intsumisoei. Hauek hasi dituzte bere mobilizazioak, eta haste honetan gose greban jarri dira, epailetan geldiketa eta presoan askatasuna eskatzeko. Bihar manifestazioa izanen da Iruñean.

AHAZTU GABE!

'ALAKIKETAN' izeneko ikustaldia izango da Iruñean datorren igandean, uztailak 4, Labrit pilotalekuan. Sanferminak gainean daudela, Iruñeko Peñek bere eguna antolatzen dute urtero, jaien aurreko igandean. Beste ekitaldi batzuren artean, Juan Antonio Urbeltz maisuaren ekitaldia ekarri dute peñek egun honetarako.

Iruñean jaiotako Juan Antonio Urbeltz artistaren azkeneko lana da 'Alakiketan' ikustaldia, eta bertan euskal dantza ezberdinak ikus daitezke, talde ugarien eskutik. Zehazki, Argia, Goizaldi, Haritz, Harkaitz, Iturengo Zantantzarrak, Oinak-Arin, Antigueta eta Añorga, eta Astigarragako Haur Taldeak ariko dira ikus-kizun honetan. Gipuzkoa, Bizkaia, Lapurdi, eta Nafarroako dantzak plazaratuko dituzte.

Ekitaldi berezi honen aurretik beste batzuk egonen dira Iruñean, Peñek egun osorako programa egin baitute. Goizeko 8.30etan hasita, txaranga, erraldoiak, dantzariak, eta bestelakoak izanen dira kaleak barna. Arratsaldeko 18.00etan, Herri Kirolak ikusteko aukera izanen da, Takonerako lorategian. Bertan, Nafarroako lehiaketaren finalak izango dira.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, **30 seme-alaba Nafarroako**. Elkarriketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazkenean 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarriketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazkenean 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

ANJE DUHALDE abeslari os-

petsua izan da gaur goizean Euskalerrira Irratiko 'Zokobetailu' saioan. Egunero bezala, goizeko 10.00etan hasiko da programa, ordubete beranduago bukatzeko. Ostiraleroko apartadoaz gain, musikari honen elkarriketak beteko du gaurko emanaldia, eta azken abestiak, udako girak, eta aurrera begira dituen asmoak azalduko ditu.

Etiopia kristauaz erakusketa

PATXI ULAIAR / IRUÑA

Heldu den uztailaren 7an, asteazkena, zabalduko da 'Etiopia Kristaua' izena duen erakusketa, Castel Ruiz Kultur Etxean, 2001 Ondasun izeneko egitasmoaren barruan. Horrela, Angkor eta Behialako Guatemalari buruzko erakusketei segida emango die oraingoak, Unescok eta La Caixa fundazioak, Gamma argazki agentziaren laguntzaz, bultzatutako kanpainaren barruan.

Egitasmo honen bitartez gizadiaren ondasun garrantzitsuen irudi artxibo bat osatu nahi da, eta horretarako fama handiko argazkilariak, adituen agindupean, irudien sailkapena eta bilketa egiten ari dira mundu zaballean. Hau da Tuteran —Irun hiriaz gain Euskal Herrian ikusteko parada izango duen bakarra— paratzen den hirugarren erakusketa, eta ondotik etorriko da San Petersburgi buruzko beste bat.

'Etiopia Kristaua' argazki bildumak Axum eta Lalibelako erresuma zaharretan Etiopian zehar IV. mendean barreiari izen kristautasunak altxatutako elizaren irudiak jasotzen ditu. Axum, III. mendean merkatu handi eta garrantzitsua zen, eta munduan



Erakusketa Castel Ruiz Kultur zentruan ikusi ahal izango da.

A.B.

zeuden lau erresuma handienetako baten hiriburua. IV. mendean hedatu zen kristautasuna bertatik, eta VII. mendetik aurrera erresumaren beherakada etorri zen. 1135. urtean Zagweko erresuma, Lalibelako erregearekin,

herrialdean nagusi bihurtu zen, eta XII. eta XIII. mendean bitartean eliza multzo garrantzitsu bat eraiki zuen.

Eliza hauek soilik bertatik bisitu daitezke. Horietariko asko zizeldurik daude harkaitzean, eta

barrukoak hustuz eraiki dira. Denak desberdinak dira, baina denek dute inguruko mendien kolore arrosa. Argazkiak Arnaud de Wildenbergekin ateratu zituen 1992an, Francis Anfrayren zuzendaritzapean.

FESTAZ FESTA

URDIAIN

Uztailak 3, larunbata:

- 12.00 Festen hasierako etxajua, herriko intsumisoen eskutik. Alondegian gaztaia, ogia, eta ardoa banatuko da. Kalejira Zangitu fanfarearekin.
- 17.30 Bizikleta lasterketa infantil eta jubentilendako.
- 20.00 Izadi musika taldea gaueko hamarrak arte.
- 22.00 Euskal preso eta errefuxiatu politikoen aldeko afaria.
- 24.00 Izadi musika taldea goizeko bostak arte.

Uztailak 4, igandea:

- 10.00 Erromeria Herrientxetik San Pedrori.
- 12.00 Meza nagusia San Pedroko basilizan.
- 14.00 Bazkaria. Bazkal ondoren puro banaketa.
- 17.00 Zortzikoa San Pedroko zelaietan.
- 19.00 Salbea basilizan.
- 20.00 Almen musika taldea gaueko hamarrak arte.
- 24.00 Almen musika taldea goizeko hirurak arte.

ZUNIGA

Uztailak 2, ostirala:

- 20.00 Txupinazoa eta eskil jotzea. Zurrapote eta Txabiskien irekiera, eta Panama orkestrarekin dant-



tzaldia.

- 24.30 Dantzaldia Panama taldearen eskutik, eta mozzorro lehiaketa.

Uztailak 3, larunbata:

- 9.00 Gaupasa egin dutenen eskutik diana eta kalejira.
- 13.00 Meza eta lore eskaintza. Bertan ariko dira Zuñaigako abesbatza eta Lizarrako gaiteroak.

- 14.00 Haurrendako joko herrikoia eta ezusteko bonbak.
- 16.00 Ehiza ibilaldia herriko futbol zelaietan.
- 17.00 Lizarrako gaiteroak 17.30 Haurrendako bizikleta erlojupekoa. Sari handiak irabazleendako.
- 21.00 Haurrendako dantzaldia Oropendola musika taldearekin.
- 01.00 Dantzaldia Oropendola tal-

dearen eskutik.

Uztailak 4, igandea:

- 09.00 Lizarrako Gaiteroen eskutik diana eta kalejira.
- 12.00 Meza.
- 12.30 Pista Libre Gunfly's: Gaztelu puzgarriak, musika eta opariak. Horretaz gain herriko zaharrek hamaiketako dantzatzeko aukera izanen dute.
- 17.00 Berrito ere Pista Gunfly's.
- 19.00 Haurrendako txokolatada.
- 20.00 Afizionatuen pilota partidua.
- 24.00 Dantzaldia Jupiter hirukotearen eskutik.

ARRUAZU

Uztailak 2, ostirala:

- 8.00 Txupinazoa Ostaturtik. Erromeria San Pedro Basilizara, eta herri bazkaria.
- 24.00 Zeus taldearekin dantzaldia.

Uztailak 3, larunbata

- 12.00 Afizionatuen pilota partidua.
- 15.00 Bazkal ostean etxez-etxe txurrit-txurritaldia.
- 20.00 Zeus taldearekin dantzaldia.
- 12.30 Gaupasa Zeus taldearekin.

Uztailak 4, igandea:

- 12.30 Meza nagusia, eta jarraian pilota txapelketa.
- 15.00 Bazkal ostean etxez-etxe txurrit-txurrit kalejira.
- 19.00 Joteroak.
- 20.00 Zeus taldearekin dantzaldia.
- 24.00 Zeus taldearekin gaupasa.




ELIZONDOn uztailaren 18an ospatuko den Baztandarren Biltzarrean munta handiko ekitaldiak prestatzen ari dira antolatzailerak, aurtengoa 30. edizioa izanen baita. Hori dela medio, atzera begirada botako dute, argazkien bildumarekin, eta Baztango Xorroxin Irratia omenduko da, euskara, euskal kultura eta Baztanen alde egin duen lanarengatik. Aurtengo edizioa euskararekin konprometua azpimarkatuko du, lema ere 'Euskara baztzen gaitu' izanen baita. Egun nagusian artisau erakusketa izanen da 10.00etan, eta 10.30etan laxo partidua Malerreka selekzioa eta Baztango selekzioaren artean.

IRUÑEAn umeentzako euskara ikastaroak antolatu ditu uda honetarako GITE elkarteak, zazpigarren urtez dagoeneko. Honen asmoa da hurrek egiten duten euskararen erabilera udan ere luzatzea, ikasketatik kanpo ere tresna baliogarria dela erakusteko. Tailerrak abuztuaren 2tik 31ra burutuko dira, astelehenetik ostiralera, bi orduz, eta matrikulak 9.000 balioko du hil osorako, eta 5.000 hamabostaldirako.



IRUÑEko Sanduzelai auzoan utzi zuten deslari pasa den larunbatean haur bat, etxe baten eskaileretan. Auzolagunak ez ziren ohartu neskaren presentziaren hau negarrez hasi zen arte. Orduan deitu zuten poliziara eta Bideko Ama Birjina ospitalera eraman zuten. Haurra osasun onean eta arazo fisikorik gabe zegoen, eta orain hasiko dira ama aurkitzeko miaketak. Zailak, baina, neskak ez baitzeraman inolako marka edo bitxirik identifikatzeko.

ARTOZKIK herri berri bat nahi du, baina 500 milioi pezeta askotxo da gobernua errendako, nonbait. Artozki Itoizko urtegiaren uraren azpitik desagertuko da, halabeharrez, baina bizilagunek borrokari ekin diote beste herri bat lortzeko, gorago. Egun 23 pertsona bizi dira, bost familia, nahiz eta 1982an 102 izan. Gobernuak eskaini dien aterabide bakarra Nagorera joan eta han salgari dauden lur sailak erosi eta bertan etxea eraikitzea izan da. Baina haiek ez dute indennizaziorik nahi, eta bai, ordea, herria mantendu. Hori bai, Artozkiko eliza harriz harri eramango dute toki segurura, XII. mendekoa baita.



Eusko Ikaskuntza elkartearen 75. urteurrena ospatuko da irailean Oñatin (Gipuzkoa), baina garai txarrean etorri da, nonbait, zorioneko data. Arazo ekonomiko larriekin, erakunde ofizialen

«entusiasmorik faltaz» kexu dira bertan, eta hori dela eta 1918 eta 1977an egin ziren hitzarmenak berriro egin nahi du elkarte kulturalak. Nafarroan horretarako «giro ona» dagoela dio Tomas Urzainki presidenteak.

Asmoz baina ezinez

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Pasa den ekainaren 6an urtebete egin zen Goio Monreal nafarrak Eusko Ikaskuntza erakundearen presidentzia hartu zuenetik. Etapa berri bat zabaldu nahi zuen puiurrak, baina, hasierako beharrak beste erakundeek berenganatu izanak sortzen dituen ondorioak somatu ditu itzuli denean. Arazo ekonomikoek, egun, ez diote uzten erakundeari dituen proiektuak ga-

dartu eta, EEko zuzenbideak ematen dituen baliabideak aprobetxatuz, koordinazioaren pape-ra gauzatu beharra nabarmentzen du.

EGUNKARIA.— Egun dituzuen arazo ekonomikoak Diputazioak eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzen murrizpenengatik dira. Zergatik izan dira murrizpen hauek?

TOMAS URZAINKI.— Euskal Herriko administrazioek Eusko Ikaskuntzarekin zuten hasierako

helburua —euskal kulturaren berpizkundea— oraindik balio-garria izan daiteke, baina hamar-kada honetan lehen ez zeuden erakunde asko daude Euskal Herrian, hala nola unibertsitateak: egun baditugu sei. Hala ere, unibertsitateen arteko harremana lotzeko eginbeharrak dirau, eta unibertsitateetatik kanpo dauden ikerkuntza bultzatu egin beharra dago. Elkarte zientifiko hori koordinatu behar da, eta hori da gure eginbeharra.

Eusko Ikaskuntzak Euskal Unibertsitatearen proiektua osatu zuen, Autonomi Estatutu bat egin zuen —dagoen osatuena—, ikastolen munduan jardun zuen, testu liburuekin, eta antropologia, arkeologia, eta zuzenbide arlotan egin zuen lana. Hala ere, aurreratuta ere, zenbait arlotan badago oraindik hutsune handia. Egun badaude hiru elkarte autonomoak, bereiztuta, eta hori koordinatu beharra dago. Horretarako gogotik ikertzen ari gara Europako Elkarteak ematen duen babes juridikoa. Kontuan hartu behar da gaur egun zuzenbide konstituzionalak debekatu egiten duela elkarte autonomoen arteko elkarlana edo federazioa, eta EEko zuzenbideak, ordea, onetsi ez ezezik, bultzatu egiten du hori. Orduan, 1918an lau diputazioen artean sinatu zen akordio hura

Urteurrena aprobetxatu nahi da erakundea berpizteko, eta eskatu nahi zaie diputazioei hasierako konpromezua berrets dezaten».

—1978an berretsita— egunean jarri nahi dugu, mugaz gaindiko protokolo batekin, eta Akitania, Euskal Autonomi Elkarte eta Nafarroaren arteko elkarlan kulturala bultzatu.

EGUNKARIA.— Irailerako daukazue 75. urteurrenaren ospakizuna, eta abenduan 12. Kongresua. Arazo ekonomikook zer eragina izango dute bi ospakizun hauetan?

URZAINKI.— Eragina izango dute jakina, eta horregatik urteurrena aprobetxatu nahi da erakundea berpizteko. Horretarako eskatu nahi zaie diputazioei hasierako konpromezua berrets dezaten, eta, egun dagoen errealitate juridiko berriari —Euskal Herria banatzen duten hiru elkarteak ez baitziren ez 1918an ez 1978an ere— erreparatuz, eta EEko Zuzenbideak ematen dituen aukerak aprobetxatuz, elkarlana berrindartu. 1992ko otsailean hiru elkartearen artean sinatu zen protokoloan garbi ikusten zen osatzen duten elkarte kulturala indartu beharra zegoela, eta hitzarmenak sinatu beharra




ratzen, eta pasa den asteburuan egin zen biltzarrean arazo horiek erakundearen martxa oztopatzeko zegoen arriskua ohartarazi zen.

75 urteurrenaren atarian, Tomas Urzainki presidente nafarrak erakundeak oraindik «zeregin handia duela» azpimarratzen du, «Euskal Herriko kultur gune eta elkartearen arteko harremanetan dena egiteke baitago». Horretarako diputazioak eta Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena berrin-

entusiasmoari ez diote eutsi, garbi dago. 1982-83ra arte bultzada handia eragin zuten elkartearen, baina hortik aurrera, azken hamarkadan batez ere, ahaleginak galdu du indarra, eta zenbaitetan, Araban eta Bizkaian, kasu, jeitsi egin da ematen diguten diru kopurua. Gipuzkoa eta Nafarroa izan dira eutsi dioten bakarrak. Hori azaltzeko badira arrazoi asko, garbi baitago erakundea hazi egin dela, eta helburuak berrindartu behar direla. Hasierako

EGUNKARIA.— Hasierako proiektuak aipatu dituzu. Oraindik, gaurko euskal gizartearen, esanahia badutela uste duzu?

URZAINKI.— Hasieran dena zegoen egiteke, izugarritzko hutsunea baitzegoen. XIX. mendean Euskal Herriak presio politiko itzelak jasan behar izan zituen, eta kulturaren egoera tamalgarria zen. Nafarroako Diputazioak hartu zuen orduan ardura, eta 1865an sortu zuen Euskal Unibertsitate bat. 1918tik aurrera



Eusko Jaurilaritza edo unibertsitateak garatzean ahalegin handiak sartu ziren eta horrek eragina izan zuen elkar-tean».

zegoela. Eta Eusko Ikaskuntza, izatez, mugaz gaindiko erakunde da. Erakunde hau osatzen dute, bazkidek eta erakundeek ez ezik, ikerkuntza munduan dabil-tzan elkar-teek ere. Orain egiten ari diren estatutu juridiko berrietan, denen partaidetza eta erakundearen osaketa berrantolatuta nahi da.

EGUNKARIA.— Eta zein da administrazioetan ikusi den jarra-ra?

URZAINKI.— Badaude arazoak, jakina, eta ez dago guztiz mami-tuta. Hala ere baikor izateko arrazoiak baditugu, elkarriketak oso adiskidantzakoak izan baitira orain arte.


EGUNKARIA.— Baina arazoak ekonomiko hutsak dira?

URZAINKI.— Bai, funtsean bai. Orain badaude egitasmoak, proiektuak, eta erakundeak konpondu egin du proiektuarena. Orain betebeharra administrazioen esku dago: haiek erabaki behar dute erakundeari laguntza ematen dioten eta interesa ba ote duten gure helburuak lortzeko. Horien artean azpimarratzekoa da euskal kultura internazionalizatzearena. Horretarako baze-goen Eusko Ikaskuntzaren al-dizkari internazionala, eta orain berrosatu da goitik behera. Renoko (EEBB) Unibertsitatetik egingo da oso-osotik duela gutxi barru, proiektua nahiko aurrera-tuta baitago. Horren bidez helbu-rua da toki guztietara heltzea, euskal kulturaren munduan argi-taratutako gai guztien lapurpen antzeko zerbaitekin.

EGUNKARIA.— Zuek egiten ze-nuten lana beste erakundeek —unibertsitateek, elkar-te kultu-ralek— betetzen dute gaur egun. Zein oinarrien gainean paratu edo bultzatu nahi duzue erakun-dearen bigarren berpizkunde hau?

URZAINKI.— Erakunde horiek izanik ere, garbi dago oraindik badaudela hutsuneak. Adibidez, zientifikoen elkargo horren arteko harreman finkoa oraindik ez da lortu. Gainera, ez dago Euskal Herria batzen duen entitate juri-dikorik. Eta hori zen gure era-kundearen hasierako asmoa.

Ikerlarien arteko koordinazioa orain-dik ez da egin, eta ez dago batzen gaituen entitate juridikorik. Hori da gure lana».



«Nafarroan ahal izan duguna egin dugu», dio Urzainkik.

JOXE LACALLE

Beraz, asmo hori berrindartu beharko litzateke. Ez inor baz-tertu asmoz, kontrakoa baizik.

Eta konpontzeko arazoak anitzak dira. Bat aipatzearen tele-bistarena aipatuko nuke. Euskal Telebista Euskal Herria osoan ikusten da, baina estatutuak, fi-nantziarioak, Euskal Autonomi Elkartean dago. Horri konponbi-de eman behar zaio, eta berdin ikastolekin, zuzenbidean... Eta

hori koordinatzeko Eusko Ikas-kuntzak erakundeak egin dezake papera, urte askotako esperien-tzia baitauka.

EGUNKARIA.— Hala ere, era-kundearen irudia ez da gizartearen arazoak konpontzen jarduten duen horietakoa, elitista itxura samarra hartua baitu...

URZAINKI.— Bai, akatsak ba-daude, baina gure asmoak ez dira soilik unibertsitate mailako edo

jakinduri handiko ikerketak egi-tea, ezta soilik dibulgazio lanak burutzea ere. Biak dira beharrez-koak eta ezin dira ahaztu. Ikertu egin behar da, baina gero gizar-tera itzultzeko. Eta nik uste dut ikerketa eta dibulgazioaren artean oreka hori badagoela gaur egun erakundearen barruan. Ba-daude, kasu, nazioarteko ikerla-riekin goi mailako harremanak, baina elkar-tearen barruan dauden

elkar-teen bidez badago gizar-tearekin harreman zuzenagoa.

EGUNKARIA.— 1982tik aurrera erakundeek erakutsitako motel-tasunarekin batera etorri al da Eusko Ikaskuntza elkar-tearen gogo eta lanen beherakada?

URZAINKI.— Urte horietatik au-rreara gauzatu ziren erakundeetan —Eusko Jaurilaritza, Euskal He-rriko Unibertsitatea—, ahalegin handiak sartu ziren, ez bakarrik ekonomikoak baina baita fisi-koak ere. Eta horrek eragina izan zuen gure erakundearen, jende as-ko aritu baitzen bertan. Hala ere, horri buelta ematen ari zaio gaur egun. Azken urteotan autonomi elkar-teko administrazioa antola-tzen jardun duen jende asko itzultzen ari da erakundera —ha-la nola Goio Monreal presidentea bera—, egunean jartzeko eta ha-sierako helburuak betetzeko.

EGUNKARIA.— Irailean, Oñatin (Gipuzkoa), izango duzue 75. ur-teurrenaren ospakizuna, eta abenduan 12. Kongresua. Zer es-pero duzue bi ospakizun horie-tatik?

URZAINKI.— Iraileko ospakizu-na batzorde ezohizkoaren antze-koa izango da. Lehen zatira iker-kuntza munduan dabil-tzan Eus-kal Herriko elkar-te gehienak dau-de gonbidaturik, eta ondoren Euskal Herriko gobernuen or-dezkarietara egingo da bilera, ai-patu hitzarmenak lortu asmoz. Gero izango da bazkideen Batzar Nagusia, eta bertan Araba eta Iparraldeko zuzendaritzak auke-ratu dira. Garbi dago une garran-tzitsuan gaudela, eta oraindik de-na daukagula egiteke. Horreta-rako eraikitzeko ilusioa behar du-gu, arazo larriak ez baitaude. Lan kontua da.

«Inguruari atxikita»

A.B. / IRUÑEA

Eugenio Arraiza Eusko Ikas-kuntzaren Nafarroako idazkariak utzi berri du lanpostua, eta azken urteotako aurpegi ezezaguna gal-du du, horrenbestez, elkar-teak. Urte hauetan ikerketa mailan ez ezik euskal munduaren susta-tzaile eta partaide izan da era-kundearen, baina hemengo lana bes-te tokietan izan denarekin konpa-ratuz zailagoa edo desberdinagoa ez dela izan azaltzen du Tomas Urzainkik. «Gerra aurretik gar-rantzi handia eskuratu zuen el-karteak Nafarroan, eta seirehun-dik gora bazkide izan zituen, or-duko intelektual guztiekin: Ar-turo Kanpion, Luis Sorozabaleta, Julio Altadill, Monumentuen Batzordekoak... Orduan lan oso garrantzitsua egin zen». Hala ere, Diputazioarekin harremana 1982an eten zen, supituki, Meri-naldei buruz egiten ari ziren jardunaldi batzuetan, eta arrazoi nimitzuen batzuegatik. Orduan, Diputazioa, Jaime Ignacio Del Burgo buru zela, Eusko Ikaskun-tzatik atera zen. Horrek gutxi

iraun zuen, baina.

Lanaren emaitzaz ez dago ke-xu Urzainki, baina gehiago ere egin zitekeela nabarmentzen du. «Ahal izan duguna egin dugu, garbi esanda, aukerak ere eska-sak baitziren, eta kontuan hartu behar da orduko zuzendaritza ez zela egokitu beharrei. Hala ere, kanpoko eraginak izan dira, ba-rrukoak baino. Egun, «giro ona» dagoela dio, eta horrek aukera ematen diela etorkizunari buruz itxaropentsu izateko. «Elkar-te kultural gehienak daude barruan, eta Nafarroako Gobernuarekin harreman oso ona dugu. Beraz, aukera handiak ditugu».

Seirehun bazkide inguru ge-rraurreko garaian, egun 350 ingu-ru dauka elkar-teak, eta hori aipa-tzen du Urzainki egin beharreko lana. Halaber, nafar kultura ga-ratu beharra azpimarratzen du «bere osotasunean, eta trabarik gabe». «Hemen gehien kezka-tzen gaituen gaia komunikabi-deena da, hizkuntza bat ezin baita hori gabe garatu. Halaber, zuzen-bide arloan ere lan handia egin beharra dago, zuzenbide nafarra

oso osoa eta zabala baita. Asko dago eginga, baina beste hainbeste egin behar da oraindik. Euskal kulturaren zati handi bat Nafa-rroan dago, oinarritzak gainera, batez ere arlo hauetan. Eta hor egin behar da lana».

Halaber, Euskal Herriaren Nafa-rroari buruz dagoen ezagutza eskasari irtenbidea eman nahi dio elkar-teak, Urzainkiren esanetan, «beti ere, inguruari atxikita». «Elkar-te zientifikoa da gurea, eta horregatik arlo kultural guztie-tara hurbildu beharra dauka. Eta hori da erakundeak beti egin due-na. Gaur egin horrek badauka be-rebiziko garrantzia hemen, arra-zoi soziopolitikoek eragin txarra izan dutelako kulturean. Jarrera ideologizatuak mesede eskasa egin diote kulturari, gauza asko nahastu baita, eta arazoak ikus-pegit objektibo batetik begiratu beharra dago. Gainera, gure era-kundeak ezagutarazi behar die beste euskaldunei Nafarroako kultura, osotasun horien zati bat garen neurrian. Gaur egun oso ezezaguna baita Nafarroa euskal kulturaren munduan».

Gazteendako Zokoa



XAKEAN



Nafarroako Banakako Xake Txapelketaren 3. jardunaldiko partida, 1993ko otsailaren 6an jokatu. J.M. Redin (2.185 ELOkoa) Santiago Alfonsoren (2.015 ELOkoa) aurka.
1. e4, e5; 2. f4, Ac5; 3. Dh5, Zc6; 4. e5, g6; 5. De2, Ze5; 6. c3; Ag1; 7. Gg1, d6; 8. d4, Dh4 xa; 9. g3, Dh2, 10. Gg2, Dh3; 11. e5, Ad7; 12. d6, 0-0-0; 13. Gg1, De6. Hemen hasiko da partidaren bukaera (ikus koadroa). Damen aldaketa, gaztelua, eta matea mehatxatuz, beltzak suntsituko dituzte. 14. Dc4, Dd6; 15. Af4, Db6; 16. Dd4, Db2; 17. Dc5, Ac6; 18. De5, Ge7; 19. Dh8, Da1; 20. Dg8 xa, Ge8; 21. Ah3 xa, f5; 22. De6 xa, Eb8; 23. Db3, Ae4; 24. Ef2, Ad5. 25. Gd1.

Bertsoak

Ikastolako atean hiru urteko haur bat negarrez ikusi duzu. Elizondoko Bertso Eskolan abestutakoa.

Anai txikitxo erran zaidazu oraintxe zuk zer daukazu? Dendak erositako puxika airean joan al zaizu? Hori bakarri pasa bazaizu nigarra orain utz zazu emango dizut nik bai dirua ta bat erosiko duzu

Orain anaitxo pozik al zaude puxika berriarekin? zuk nahi baduzu jolastuko naiz hemen gustora zurekin gero etxera joango zara eskutikan bai nerekin eta etxean gustora afaldu gure familiarekin.

Maji Arrijurria

Jenero Xumekoak

Sanferminetako argiastia

Zezenak Santodomingon barna korrika, nere iruñako maitea. Ez joan Estafetara, ez joan zezenetara, adar zorrotzak eta larrua beltza bait dituzte. Han ikusten bazaitut, nere iruñako laztana, segituan hilko naiz. Ez joan oraindik nire ondotik. Beno laztana joan zaitez, zezenetarako balioko duzu behinik behin.

JEREMIAS ERRO

Eskolan barna alferrik

GARBIÑE HERNAORENA

Bihar azterketa dut, beraz amak egindako afari goxo-goxo bat afaldu ondoren, aitarekin hitzegtien geratu naiz, ohean sartu eta ametsik ez egiteko. Afaldu eta berehala joaten banaiz ohera gaizki lo egiten dut eta ametsak egiten ditut. Beraz, aitarekin ordu erdi baten egon ondoren, komunera joan, hortzak garbitu, eginbeharak egin eta nere logelara joan naiz eta ohean sartu nahiz. Han ikusi ditut nere mahaiaren gainean neure liburua, niri begira, triste samar. Bero, iratzargailua begiratu dudanean hamarrak puntuan zirela zioten erlojuaren horratzek, eta orduan nire iratzargailua goizeko seiretan, txirrina jo zezan jarri dut.

Nire maindire sedazko txurietan bildu naiz, eta berehala lo hartu dut. Amak goizean esan dit argia itzaltzeko baina ez dut itzali, eta lo hartu dut. Goizean, osteguneko goizeko seiretan jo dit iratzargailuaren txirrinak. Aldi bat baino gehiagotan egin du soinu, baina ez dut itzali. Neure iratzargailuaren txirrinak gero eta indartsuago jotzen du, beraz, berehala esnatu egin naiz. Maindirean tartetik atera eta mahairantz abiatu

naiz ikasteko asmoz. Mahaira erdi lo ailegatu naiz eta liburua falta, han ez zegoen nere liburuen aztararik. Atzo gauean hemen zeuden neri begira, triste-triste, eta gaur goizean, hau da, orain, ez daude. Ze arraroa! Non dira nere liburu madarikatu horiek? galdegindiot neure buruari. Baina, atzo gabeen hortxe zeuden eta. Nork lapurtu dizkit? Sorginen bat badabil neure etxean? Orduan amari galdegindiot. Ama, zuk dituzu nere liburua? Amak eta aitak ezetz esan didate. Orduan, nere anaiarengana joan naiz eta harek ere ez zituen. Ondoren denak kezkatuta, etxe guztian barna begiratzen hasi naiz, lehenengo nere logela ondo behatu dut, gero sukaldara joan naiz, han ere ez zegoen nere liburuen aztararik. Agian nere txakur txikiak hartu dizkit? Ondo behatu dut bere ingurua eta han ere ez zegoen nere liburuen aztararik. Orduan, ahal dudanez moduan jantzi, garbitu, gosalduta eta goizeko zazpiretan eskolarantz abiatu naiz. Kanean ez zen inor ikusten. Poliki-poliki eskolarantz ailegatzeko joan naiz, ez zen ezer ikusten, dena ilun zegoen, auto bat edo beste pasa da, baina gutxi. Eskolara ailegatu

naiz, zazpiak eta hamar dira eta eskolako ateak itxiak daude, eskolara bederatzietan sartzen baikara, eskolako frontoiatik ere joan daiteke gelara, baina frontoia itxita dago, orduan zer egingo dut? Hemen ondoan badago auto bat eta honen barnean soka bat, eta etxea kasualitatez irekita dago. Soka hau hartu dut eta jarri dut, eta igotzen hasi naiz, ordu laurden bat pasa ondoren, hau da, zazpi t'erdietan goraino igo naiz. Lehioa kanpoaldetik ireki dut eta sartu egin naiz, eskola ondo miatu dut eta han ez dago nere liburuen aztararik. Orduan, eskolatik etxerantz abiatu naiz eta eskailera igotzen hasi naizela, eskaileretan ikusi ditut nere liburua, eta pozaren pozez hartu ditut. Orduan galdetu diet. Non zinaudeten? Non ibili zarete? Liburuak hartu eta neure ikasketarako mahian jarri eta ikasten hasi naizenerako zortziak ziren. Baina hiru ordu laurden ikasteko astia eman dit. Beraz, eskolara egin dudanez bidai eta denbora galtzea alferrikakoak izan dira. Denbora hau, hau da, seiretatik zazpi t'erdia arterainokoa ikasteko laburra bada, gaur goizean gertau zaidana pasatzeko oso denbora luzea da.



KAZKARROAN

A B I N T Z A O K G U G
M A A L L O S E B O J E
S A F U R H A R D I G T
H E Z I L E G I E T A Z
N K N Z A E B O P I M E
I U K G I Z I S I O A L
N D A J A L T D S G E J
A U R K Z R O L E R D E
Z E Z G E T I P A A L B
B L U M Z L X T Z B O H
F O L I Z K O U Z I A O
N B N K B I T B A F I Z

N-78

LETRA
ZOPA

Aurki itzazu letra zopa honetan ibargoitiko ibarra osatzen duten 11 herrien izenak. Izen hauek ezker eskuin, eskuin esker, goitik behera, behetik gora eta diagonalean irakurrita agertuko zaizkizu.



El Perdon-Erreniega (I)

Ez nuen uste artikulua idaztea horren zaila izan litekeenik. Iruñerria hegoaldeko babesten duen mendi ezagunaren izenak buruhauste franko ekarri dizkit. Ohituak gaudela leku-izenak euskal edo erdal multzoetan sartzen, batere zirrikiturik gabe, bat euskaldunentzat egokia, bestea erdaldunentzat. Hala da zenbaitetan, jakina, baina ez beti (ez ahaztu *San Cristobal-Ezkaba* bikotea). *Erreniega* eta *El Perdon* aspaldidanik bizi dira elkarrekin. Eta ez, baten batek pentsa lezakeen moduan, *Erreniega* euskaldunen ahotan eta *El Perdon* erdaldunen ezpainetan. Biak erabiliak ziren bi hizkuntzatan. Hona hemen J.M. Jimeno Juriok bildutako adibide batzuk: *Perdonançara bidea* (1594), *Perdona bidea* (1683), *Perdona vizcarr* (1665), *Nuestra Señora del Perdon* (1613) alde batetik eta *Renega, mot et yermo de Reniega* (1402), *Nuestra Señora de Reniega* (1565) bestetik. Baina ez dira, ez, sinonimoak izen guzi hauek. Bestela badirudi ere oso datu koherenteak dira, datu bat izan ezik. Irakurlea ohartu baldin bada, gorago aipatu izen zaharretan, *Nuestra Señora del Perdon* eta *Nuestra Señora de Reniega* bildu ditugu. Horra hor, berriz ere, gure toponimo problematikoko gehien nahasmendu zerutiarra: hagonimoak, hots, sainduen izenak.

Antza denez, Erdi Aroan mendien izenarekin ez zen problemarik izan eta (Er)Ren(i)ega izen bakarra zen. Geroztik ermita bat eraiki zen Astraingo lurraz zeharkatzen zituen Donejakue bidean, Iruñerria eta Izarbeibar lotzen zituen lepoan hain zuzen ere. Ermita Andre Dona Mariari eman zitzaion. Batzuek *Erreniegako Andre Dona Maria* esan zioten, *Erreniegan* kokatua zelakoz, eta besteek *Perdoneko Andre Dona Maria* hari esker erromesek eskuratzeko zituzten mesedeengatik. Santiago urrutiko zegoenez eta erromes askorentzat bidea nahi baino gehiago luzatzen zenez, Donejakue bideko zenbait elizatan Santiagon irabaz zitezkeen *jubileo* berberak banatzen ziren. *Privilegio* hauei *perdonanza* esaten zitzaion.

Beraz badugu izen bakarreko mendia, *Erreniega*, eta izen biko ermita. Hasiera batean bi izenak orekan zeuden. *Perdona*, euskaraz eta erdaraz, ermita inguruko alderdia zen eta *Erreniega* mendi osoa ermita barne zelarik. Oreak, hala ere, azkenean hautsi zen eta *Perdon* izena zabaltzen joan zen batez ere Iruñekoan artean bertakoe, Galar zendeako zaharrek, bereizketa zaharra gaur arte irau-narazi dutelako.

MIKEL BELASKO

Bizi Bizian

Sanferminak hasiko dira heldu den asteartean, hilak 6. Iruñean eta Lesakan dira herriko jaiak, baina Nafarroa osokoak ere badirela ezin uka. Iruñera asteburuan soilik hurbiltzen direnendako pro-

posamenezko egitaraua eskaintzen dugu hemen, festaren ahalik eta irudi osoena hartzeko, eta baita aurtengo edizioan eztabaida edo berritasun sortuko duten zenbait gai ere.

Sanferminetan ez galtzeko gida

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

● PEÑAK

Hilak 4, igandea, hasiko dira 'ia ofizialki' Sanferminak, Peñen Batzordeak antolatzen duen Peñen Egunarekin. Urtero abiapuntutzat hartzen da ekitaldi jendetsu eta herrikoi hau Iruñeko jaiak gain-gainean daudela jakiteko, eta aurtan ere halaxe izanen da. Bertan dianak, kale animazioa, txarangak eta erraldoiak izanen dira, herri kirola eta berbenarekin batera. Nafarroako Herri-Kirol Txapelketa ospatuko da egunotan. Eta peñen barruan, bat berria, Mutilzarra izeneko. Berrogeita hiru lagunek osatuta, Iruñeko jai giroa bultzatu nahian, izena gora-behera, neskendako lekua badagoela azaldu zuten aurkezpenean.

Peñek, bestalde, zezenplazan portaera nolabait hobetzeko deia egin die beren bazkideei. Hala, ber, emakumezkoekiko jarrera ere hobetzea eskatu zuen Peñen Batzordeak, garai honetan izaten diren kontrako eraso eta jarrerak direla eta.

● KALE-SALTZAILEAK

Udaltzaingoak zerbitzu berezia paratuko du kalean edari edo janariak saltzen diren postuendako, osasun publikoaren arazoak direla eta. 1993ko Babes Zibila-ren Plangintzaren arabera, helburua «baimena edo behar diren baldintzak ez dituzten janari guztien salmenta debekatzea» da. Edozein motatako beste produktuen salmentari dagokionez, ezin izango da ibilgailu, mahai edo antzekoetan egin. Beraz, saltzaileek gainean eraman beharko dituzte produktuak eta toki batetik bestera ibili beharko dute, toki finkoan gelditu gabe.

Oro har, 60 baimen eman ditu Udalak, 28.890 pezetan, eta gaur, 15.00etan amaituko da horretarako epea. Eskerak Hiritarren Babesa Sailean (Iratxeko Monasterioa, 2) edo Udalaren Informazio Bulegoan (Santiago plazan) entregatu daitezke.

● AUTOBUSAK

Iaz martxan jarritako esperientziari jarraipena eman asmoz, autobusak gauze ere ariko dira Sanferminetan, gaueko 1etik 6ak bitarte, hain zuzen. Luzapena baina, ez da linea guztietan izango, eta 2-5 —Merindades-Etxabakoitz—, 3 —Labrit-Bianako Printzea—, 4 —Sarasate pasealekua-Barañain—, 9 —Sarasate pasealekua-Tren Geltokia—, eta 11 —Labrit-Txantrea— lineetan bakarrik izango da. COTUP enpresak iaz baino lau autobus

PROPOSAMENEZKO EGITARAUA

San Ferminetan ez da aspertz denik, giroa nonahi topatzen baita, baina kale eta tabernetakoaz gain jai hauen ezkutuko xarmak topatzen gozatu nahi izanez gero, hona gure proposamenezko egitaraua, ahalik eta gutxien galtzeko.

ASTEARTEA, 6

12.00etan Udaletxetik "Txupinazoa" eta musika banden kalejira.
13.00etan Foruen Plaza. Folklore jaialdia zenbait talderekin.
20.00etan San Fermin kapera, San Lorenzo eliza. Bezperak.

ASTEAZKENA, 7

08.00etan Lehen zezen entzierrua, Jose Cebada Cago ganaduzaleen zezenekin.
10.00etan San Fermin prozesioa. Ondoren Meza Nagusia San Fermin kaperan.
23.00etan Gotorlekua. Aparteko bilduma piromusikala, Caballer S.A. pirotekniaren eskutik.

OSTEGUNA, 8

12.00etan Musika banden kaleratzea Udaletxe plazatik.
18.30etan Takonera. Haurrendako euskal jaia, Takolo, Pirrux eta Porrotx pailazoekin.
23.00etan Arrotxapeko zubian. Entzierrotxoa.
24.00etan Burgoen Plaza. "Amerikar gaua".

OSTIRALA, 9

11.00etan San Fermin kapera. Meza eta haurren eskeintza sailduari.
12.00etan Takonera. Bertsolariak eta trikitilariak.
23.00etan Rodezno Kontea Plaza. Beijing-eko eta Quebec-eko Dantza taldeen emanaldia.

LARUNBATA, 10

11.00etan Zezen plaza. "Eusko-Landar" zezenketa.
24.00etan Gazteluko Plaza. Dantzaldia "Scala 2000" orkestrarekin.

IGANDEA, 11

11.00etan Zezen plaza. Puntetako zezenen zezenketa batekin moztailen III. Lehiaketa.
12.00etan Udaletxe plaza. Txistularien alardea.
00.30etan Antoniotti. Gaujaia, "Salduba" eta "Metropolis" taldeekin.

ASTELEHENA, 12

08.30etan Gazteluko plaza. Haur eta aiton-amonentzako txokolate jana.
18.30etan Zezen plaza. Zezen feria, Ortega Cano, Ricon eta Poncerekin.

ASTEARTEA, 13

12.00etan Takonerako lorategiak. "Alma navarra" eta "Botes navarros" taldeen kontzertua.
19.00etan Gotorlekua. Txontxongiloak.

ASTEAZKENA, 14

10.45etan Udaletxe plaza. "San Ferminen Zortziurrena" elizkizuna.
14.00etan Autobus geltokia. Iruñeko haurrek erraldoiei azken agurra.
24.00etan Udaletxe plaza. "Pobre de mi".

J. APEZTEGIA



gehiago jarriko ditu, eta ohizko txartela baino ez erabiltzea eskatu dio Udalari: bonobusik ez, alegia.

● HOTELAK

Azken urteotan bisitarien kopurua jeisten ari denik ez da dagoneko ustekabea. Hasieran begi onez ikusi zen bilakaera, soberrazko jendetzak sortzen zituen arazoengatik, baina hotelak beteta ez izateak kezka sortu du, nonbait. Hori dela eta, hiriko hotel nagusienek kanpaina bati ekin diote turistak erakartzeko. Iruña Park, Ciudad de Pamplona, Blanca de Navarra, Maisonnave, Avenida, Orhy, El Toro, Europa eta Tres Reyes hotelak, horrela, iaz bete gabe gelditu ziren 2.000 gela inguru horiek betetzeko ahalaginak batu dituzte. Horretarako publizitate berezia egingo du Hoteles Pamplona elkarteak Madril, Batzelona eta Valentzian. Kanpainaren helburua da festen aspaldiko irudia berreskuratzea eta kalitatearen ideia zabaltzea.

● RIAU-RIAUA

Aurtan ere ez da izango, eta ohitura bihurtuko den beldur dira asko, egitea ohitura bihurtu zen bezain modu isil eta ustekabea. Duela bi urteko istilu larriak ez ditu oraindik ahaztu, nonbait, alkateak, eta aurtan, jakina denez, ez dago egitarau ofizialean. Iaz Riau-riauaren aldeko Mahaia osatu zuten elkarte eta talde frankok, baina ez zen akordiorik lortu, eta aurtan ez da ezta hori ere egin. Alkatetzaren ustetan, ez dira kentzera behartu zuten baldintzak aldatu. Mahaian 60 talde inguru daude, eta iaz Peñen Batzordeak irtenbideren bat bilatzeko deitu zuen. Ez zen deus lortu, eta Peñek aurtan ez dute ahalagin berbera egin «ez baikara salbatzaileak ezta interesa dugun bakarrik». Hala ere, duela hiru aste izandako bileran ekitaldia berriro egiteko nahia azaldu zioten Alfredo Jaimeri, eta honek gaia erabat itxia ez zegoela adierazi zien. Askok aldatu beharko dute gauzak berriro ospatzeko, eta gogoratu behar da iaz ekitaldi ez-ofiziala egin dela.

● BARRAKAK

Hogeita bi barraka izango dira aurtan Yanguas y Miranda kalean dagoen aparkalekuan, bigarren aldiz. Barraka bakoitzak 100.000 pezeta ordaindu beharko dio Udalari, eta denen artean 2,7 milioi Mecari, lekuaren erabiltzaileen truke. Erakundeekin akordioa joan den asteko ostegunean itxi zen. Horren bidez, barrakak hilaren 6a eta 14a bitarte zabalduko dira.

Lesakan musika arazorik ez

P.U. / LESAKA

Elizara igo eta jeisterakoan bandak eta dantzariak eraman beharreko musika izan zen iaz Lesakako jaien gai eztabaidatuena, baina aurtan konponbidean dagoela dirudi, Udalak, dantzariak eta bandak berak hartutako akordioaren bitartez. Akordio horren arabera, uztailaren 7an, goizean, udaletxetik elizara 'Napoleones' izeneko musika joko dute; Elizatik Esko-txikira, berdin, eta Eskol-Txikitik plazara eta plazan bertan musikari lesakarren piezak. Arratsaldean, udaletxetik elizara, 'Napoleones', eta jeisterakoan, lesakarren piezak.

Gogoratuko denez, iaz esames ugari izan ziren herrian Javier Igoa bandaren zuzendariaren erabaki bat zela eta. Udaltzat

eta ezpatadantzariak elizara egiten duten igoeran, aspaldi honetan 'Napoleones' martxa militarrekin egiten zuten, eta asko hori betikoa zelakoan zeuden. Ez da, ordea, horrela, aurretik bandan ibilitakoek beste hainbat martxa gogoratzen baitituzte. Kontuak kontu, 'Napoleones' zuten bakartzat gazte eta ez hain gazte diren askok, eta Bandako zuzendariari 'A orillas del río Onin' berak osatutako martxa interpretatzea bururatu zitzaionean, jendeak betikoa eskatu zuen.

Arazoa ez zen horretan gelditu, herri osoak berehala hartu baitzuen parte. Batzuk baten alde, besteak bestearen alde, eztabaida gogortu egin zen, eta elizara igotzerakoan 'Napoleones' eta jeisterakoan berria jotzea proposatu zen.

Hori ere ez zuten onartu batzuek, eta bandak, orduan, uko egin zion igotzeari, eta soilik jeisterakoan jo zuten martxa berria. Kontua da bandaren barruan ere iritzi desberdinak bazirela, eta zenbaitek herrian erreferenduma egitea proposatu dute dagoeneko.

Hori behin konponduta, ohizko martxan, bihar larunbata, lehendabiziko ekitaldiak izanen dituzte festek. Asteartean, itxal-fueroaren ondorekin, danborrada izanen da herrian zehar, herriko bandarekin, eta hilak 8, osteguna, Peñen Eguna izanen da.

Ohizkoak izanen dira orduan ur jauziak, ur erauntsiak eta ur bilduak, dena, ur edanari izan ezik.

Arratsaldean bazkaria eta txarangak ariko dira karrika guztietan zehar.

Patxi Mangado

..... arkitektoa

Abandoibarra etorkizuneko Bilboko ingururik garrantzitsuena eraikitzeke ideien lehiaketan aukeratu berri dute bere proiektua, ospe handiko beste arkitektoenekin erabiliko dena. Lizarra-

tar honen esanetan, Guggenheim edo Metroa bezain ezaguna ez bada ere, proiektu hau garrantzitsuagoa izango da hiriarentzat, «bertan paratu nahi baita hazkunde ekonomikorako azpiegitura».

«Narzisista samarrak gara»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Moneozalea dela dio, eta antzematen zaio, nahiz eta bere lanei begiratzuz tuterarraren eragina ote duen oraindik ezin igerri. Harena bezalakoa dauka hitz egiteko tonua eta arkitektura ulertzeko manera, ordea. Arkitekturaz galdetzen zaie eta ez dute proiekturik aipatzen: arkitekturaren eraginaz eta esanahiaz ari baitira, kulturaz, ekonomiaz eta gizarteaz.

EGUNKARIA.— Abandoibarrarako lehiaketa ez zen, berez, lehiaketa, kontsulta baizik. Zer-gatik?

PATXI MANGADO.— Proiektua ideia lehiaketa zen, baina Bilboko Udalak zuzenean egin zien enkargua hiru arkitekto taldeei: Cesar Pelli, Bofill eta Fernandez Ordoñezi. Beste bi proiektu lehiaketaren bidez aukeratu, eta gero aurreko hirurekin alderatu-ko ziren. Horren bidez garrantziko pertsonak ziurtatu nahi ziren proiektuan. Abandoibarrakoa izugarri zaila da, eta nekez konpon daiteke proiektu batean. Horregatik ezin zen proiektu lehiaketa egin, baizik eta ideia lehiaketa.

EGUNKARIA.— Abandoibarra funtsezko gunea izango da Bilborendako eta asko espero da hortik. Proiektu ezberdinekin egiteak ez al dio adabaki itxura emango?

MANGADO.— Ez dira adabakiak inondik inora izango. Pelliren ideia izango da nagusia, baina badaude beste proiektuetan azaldu diren zenbait ideia, inguruaren beste aldeak kontuan hartu dituztenak. Horiek baliagarriak izango zaizkie egitasmoa burutu behar dutenei, ideia guzti horiek bildu eta proiektu berrian bilduko baitira. Abandoibarra funtsezkoa da Bilborendako, eta nahitahienez, Bilbo Euskal Herriko hi-


riburua da. Ekonomi aldetik daukan botereak Kantauriko ardatzaren hiriburu nagusi egiten du, eta bere etorkizuna oso ona izango da. Hori dela eta, azpiegiturek badute hazkunde ekonomiko hori sostengatzeko betebeharra. Beraz, garrantzi handikoa da inguru hau, hiriaren hazkunde beharren ondorio eta sorburua izan baitaiteke.

EGUNKARIA.— Eta nola integratzen da Abandoibarra Guggenheimekin, Kongresuen Jau-regiarekin eta beste proiektuekin?

MANGADO.— Dena dago lotuta. Bilbok hiriburu izakera berreskuratu nahi du, eta horrek ez dakar irudia saltzeko zenbait proiektu bakarrik. Proiektu hauen atzetik hazkunde ekonomikoa behar da, eta horren bila ari dira orain Bilbon. Badago lehengo garrantzi ekonomikoa, politikoa eta kulturala berreskuratzeke nahia, hiriburua izateko nahia, eta hori oso garrantzitsua da. Eta hor badago jauzi funtsezkoa: Bilbok ez du Euskal Herriko hiriburua bakarrik izan nahi, mugaz gaindiko eragina nahi duelako. Bilbok betidanik izan du joera hori, mugak gainditzekoa, baina azken urteotan nolabait itota zegoen. Horregatik, oso garrantzitsua da Bilbok, proiektu hauen bidez, Europako hiriburu izakera berreskuratzea. Eta oso esanguratsua da bai alde politikoan bai kulturean. Euskal kulturaren irudia beti izan da oso itxia, bere baitan bildua, eta botere politikoek orain ikusi dute hori akats bat dela eta kultura hori kanpora proiektatu behar dela.

EGUNKARIA.— Hala ere, horri buruz eztabaida bizia dago Euskal Herrian...

MANGADO.— Hain zuzen ere, bi jarrerak topo egiten dutelako. Alde batetik, kultura ulertzeko modu bat sostengatzeko dirua es-



JOXE LACALLE

katzen duen jarrera lokal bat, eta kultura hori kanporantz atera nahi duena. Nolanahi ere, inork ezin du ahaztu bertako kultura bultzatu behar dela, eta oso garrantzitsua da gainera. Gero ikusi egin beharko da Guggenheimek euskal kulturaren mugak gainditzeko lagunduko duen ala ez. Garrantzitsua da asmoa, baina inbertsioak emaitzak emango ote dituen jakitea zaila da. Abandoibarraren kasua oso bestelakoa da. Eragin nabarmena eta benetakoa lortu nahi dute Bilboko azpiegitura ekonomikoaren gainean. Eta emaitzak sumatuko dira, ez baita irudi hutsa.

EGUNKARIA.— Eta arkitekto bat non egoten da erosoago: irudi garbi eta atsegina duen eraikin batean, jakinda arrakasta izanez gero 'Patxi Mangadoren eraikina' deituko dutela, edo eragin handiagoa, zuzena, baina ez hain erakargarriagoa izango duen inguru industrial edo ekonomiko batean?

MANGADO.— Arkitekto askok daukagu narzismoa kutsua, eta akaso hasierako gogoia eraikin enblematikoak egitea da, betiko gurekin lotuko dituztenak. Hala ere, badakit garrantzitsuagoak direla, eta epe luzean poz handiagoak ematen dituztela mota ho-

Euskal kulturaren irudia beti izan da oso itxia, bere baitara bildua, eta botere politikoek ikusi dute hori akats bat zela».

netako hiri operazioak, nahiz eta, itxuraz, anonimoagoak izan. Horien eragina askoz ere handiagoa baita.

EGUNKARIA.— Eta zailagoak dira?

MANGADO.— Dudarik gabe. Bertan ezin kontrola daitezkeen eragin asko daude, eta gehienak arkitektoaren kontrolik kanpo: kulturalak, ekonomikoak, sozioekonomikoak. Nekez kontrola daitezke, denboran zehar ere garatzen eta aldatzen baitira. Eraikin batean dena neur daiteke, hein batean, eta aukerak garbiagoak dira beti.

EGUNKARIA.— Nafar arkitektoen urtea izan da hau. Sainz de Oizaren Asturias saria, Moneoren 'Principe de Viana, zure proiektua... Harrobia ona da?

MANGADO.— Urte ona izan da, baina Moneo edo Sain de Oizaren eta orain hasi garen arkitektoen artean ez dago loturarik, haiek Madrilaren aritu direlako. Eta pena da, gustu handiz ikasiko nukeen eta Moneorekin.

EGUNKARIA.— Norekin identifikatzen zara gehien: Moneoren lasaitasunarekin, inguruarekiko errespetuaz duen kontzepzioarekin, edo Sainz de Oizaren indarrarekin, probokazioarekin?

MANGADO.— Moneorekin, dudarik gabe. Bere arkitektura kulturala da, intelektuala, eta hori oso interesgarria da. Sainz de Oizaren lehen lanak gustatzen zaizkit, oraingoak ez ordea.

NOSKI JATOR

ZVLDI ERDA

(ZIPOKA-ZIPOKA: XAHARREN URRATSAK)

